

Ermua, euskara batuaren historiaren parte

1968ko ekaina zen. Euskaltzaindiaren 50. urteurrena ospatzeko, honen arduradunak Arantzazun Biltzar bat egitekotan ziren urrian; prestaketa bilerak Ermuan egitera bultzatu zuen zirkustantzia bitxi batek.

Euskal idazleen gogoan, hizkuntza bateratu eta estandarizatu baten premia aspalditik zebilen jiraka. Jose Luis Lizundia euskaltzainak, ordukoak ondo gogoan ditu: "Juan San Martin eibartarrari, Arantzazukoa prestatzeko, euskal idazleen batzar bat egitea otu zitzaion. Gipuzkoa baina 'Salbuespen, Exzepzio Legepean' zegoen eta 20 lagundik gora batzartzea debekatuta zegoen". Elkarrekin legalizatu bat behar zen eta Gerediagan pentsatu zen, Durangaldeko Merinaldearen Adiskideen elkartean. Jose Luis Lizundiaren lekukotasunari jarraituz: "Ermua hautatu zen eta Santa Anan zegoen 'Iniciación Profesional' eskolan batzartu ginen hiru egunez. Garai haientarako izugarritzko arrakasta izan zuen; Hego Euskal Herriaren lehendabizikoz egiten zen idazleen biltzar bat eta gaiak gero: sintaxia, deklin-

bidea, 'H'aren erabilpena...

Batasunaren kontrako purista ugari zeunden. 'H' a orduan pekatu mortala zen!". Lizundiaren hausnarketaren harira: "Ermuko biltzarra egon ez bazan, ondorio berdinak ez lirake aterako. Beraz, euskara batuaren historian, Ermuak badauka bere lekua eta ez txokotxo hutsa".

Zenbait erabaki hartu ziren Arantzazuko bilera bultzatzeko eta Jon Irazabal, Gerediaga Elkarteko langileak aipatzen digun bezala: "Manifesto bat atera zuten, erdaraz noski. Tartean Miguel Angel Astiz, 'La Gaceta del Norte' ko kazetaria zegoela aprobetxatuz, egunkari honen teletextoa erabili zuten aldarrikapen hori hedatzeko eta ezagutarazteko".

1979. Gerediagako Salbuespen ermitan Agustin Aranberria, Sabin Goikolea, Jose Luis Lizundia, Balentin Lasuen, Isabel Lertxundi, Basilio Arana.



Imanol Olaizola, Gerediaren Ermuko kidearen oroimenez: "Zarauztarranien bazkaltzen genuen; hogeitaz lagunetik gora bai. Nahasketak handia sortu zen euskara batze horrekin. Bizkaiera baztertzen ibili ziren eta gero jaso ezinik!". Partaideen loa Matienako Hostala eta Ermuko Fondarekin konpondu zuten; freskagarrien horniketara 'La Cabaña' tabernarekin... Lorentzo Iturriagaitia, une horretan Gerediagako Ermuko ordezkari: "Baimenak eskatzeaz neu arduratu nintzen. San Pedroak ziren, bero itzela egiten zuen; eskolak uralitazko teiatua zuen eta mangera batekin ura jaurtzen, freskatzeko. Iluntzi-

ro, Goardia Zibilen koartelera: '¿De qué han estado ustedes hablando?' 'De la hache, de la declinación...' Sargentoak, zera jakingo zuen deklinazioa zer zen!".

Idatzizko aipamen ugari topatu dugu: 'La Gaceta del Norte' (1968); 'Jakín' 31-32 (1968); 'Anaitasuna' 162 (1968); Gerediagaren deialdia (1968); 'Ermua-Eitza'. Leku-izenak liburuan, Jose Luis Lizundiaren hitzaldia (2002); 'Jakín' 167n, Gerediagako orduko Balentin Lasuen lehendakariari elkarriketa (2008); 'Anboto' 307 (2008); abenduaren 3ko 'Berria' (2008)... Txokotxo hutsa ez benetan!

Estibalitz González

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabalitzen dugu

Infreñu Taberna

Kardinal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

